

## ...elkarrizketa

**Francoise  
Barcoujaraud**  
• CAP SCIENCE-KO  
ANIMATZAILEA •

«Kutsaduraren  
konpontzea  
edukazio arazo  
bat da»

Akitaniako itsas bazterreko lurralde antolaketari buruzko erakusketa bat ikus daiteke Baionan, Lauga gelan.

■ **Zein da erakusketa-  
ren helburua?**

Era oso orokor batean, Akitaniako lurralde antolaketa aurkeztu nahi dugu. Bilan bat egiten dugu. Saiatzen gara ikusten zein izan diren antolaketa egin dutenek izan dituzten arazoak. Helburu pedagogikoa du. Gazteenak beren ingurumenari eta bereziki eguneroko bizitzakoari sentsibilizatu nahi ditugu. Inguramena aipatzean, ez da bakarrik natura, eraikinak ere izan daitezke.

■ **Bilanari dagokionez,  
zer mezu pasarazi  
nahi duzue?**

Ez da aski antolaketa egitea; kudeatu behar da eta kontserbatu. Horretarako erabakiak hartu behar dira, batzuetan zailak. Adibidez, hiri guneetan, monumentu historiko bat baldin bada, gerizatu behar da, haren inguruan bizitzen jakinez bezala. Berdin natur guneetan.

■ **Kutsadura azkartzen  
ari denean, gazteei  
zer erran nahi die-  
zue?**

Jendeen garraioei dagokienez, jakin behar da gehienek maite dutela beren autoaren hartzea. Beste garraio motak ez dituzte hainbeste maite. Kutsaduraren zati baten konpontzeko garraio publikoak gara daitezke. Baina hori ez da aski. Jendeak ez baditu erabiltzen, zertarako balioa dute. Edukazio arazoa da. Berdin izango da hondarkin sailkatzean. Jendeak ez baditu hondarkin bereizten, arazoa ez dugu sekulan konponduko.

**Eneko Bidegain**  
BAIONA

## ...esaera

«Urtarrila idorte, laboraria dirute»

## ...hizpideak

UNSCOM, Clintonen espioia  
Bagdaden?

■ Nazio Batuen Erakundearen irudiak kolpe larria jaso du *The Washington Post* egunkariak kaleratu albistearen ondorioz. Horren arabera, UNSCOMek Iraken zituen begiraleek euren zeregina ez ezik sator lana ere egin dute, EEBBei Saddam Husseinen kontra erabil daitezkeen informazioa helaraziz.

Salaketa larria da hau, Washingtonen eta Londresek Iraken kontra eginiko azken erasoen ondoren Mendebaldean bertan ere zabaldu zen susmoa nolabait indar dezakeena: Richard Butlerrek zuzentzen duen desarme batzordea estatu batuarren interesen aldeko tresna dela, alegia.

Kofi Annanen laguntzaileek filtratu notiziak ez dio NBERi lagunduko honek Iraken zein munduko beste leku batzuetan —Angolan, kasu— egin behar duen lana garatzen. Askok dira erakunde hau EEBBen nagusitasun geopolitikoaren tresna hutsa bihurtu dela uste dutenak, baita Washingtonen aliatuen artean ere. Segurtasun Kontseiluaren eta NATOren rolak birdefinitzeko eskaerak horren adibide ditugu.

UNSCOMen betekizunak zehaztea eta auzi honetan norberaren erantzukizunak argitzea ezinbestekoa da NBE galtzen ari den prestijio eta sinesgarritasunaz berriz ere jantz dadin.

Lurralde eskema  
gauzatu gabe

■ Ipar Euskal Herriko etorkizunari buruzko proposamenak biltzen dituen Lurralde Eskemaren gauzapena zintzilik dago gaur egun. Euskal gizartearen gogoa eta proposamen garrantzitsua sortu duen ekimenak ez du behar duen erantzunik jaso Paue, Bordele zein Parisko agintariengandik. Ipar Euskal Herriko etorkizuna, Euskal Departamenduaren lorpenetik etorriko da ezinbestez, Abertzaleen Batasunak azaldu duenez.

Albiste garratz baten alde biak

■ Albiste garratza eman zuen atzo Pasaiaiko Arrantzale Kofradiako lehendakari Jaime Tejedorek. Azken egunotako susmo txarra baieztatu zuen: *Marero* arrantzontzia urperatu egin zen. Hori baieztatzen duten seinaleak —arrantzontziaren baltsa bat eta botila bat— Arroxela aldean (Frantzia) aurkitu zituzten arrantzale batzuek herenegun. Hamalau egunetan egin-dako bilaketa lanak antzuak izan ziren, eta

justu horiek amaituta aztarnak aurkitu dituzte.

Albiste latza izan arren, badu bere gordin-tasunean alde baikor bat, seinale horiek beharrezkoak baitziren. Hala, ontzian desagertutako zortzi marinelen senitartekoek erraztasun gehiago izango dituzte kalte-ordainak jasotzeko. Bestela, zaila zen egoera, legearen arabera bi urte igaro behar izaten baitute urperatzea onartzeko eta desagertutakoak hildakotzat jotzeko.

## ...pertsonaiak



**BILL CLINTON** • EEBBeko presidentearen aurkako *impeachment* prozesuari berrekingo dio bihar Senatuak, hura kargutik kendu nahian.



**MIKEL TABERNA** • Idazle beratarrak irabazi du Tene Mujika ipuin sariketa. 37 lan aurkeztu dituzte. Tabernak *Bota xoxa!* ipuinarekin irabazi du.



**DANIEL GACHARA** • Kenyarrak irabazi zuen atzo Uliako Krosa, Donostian. Emakumeen artean Georgis etiopiarra izan zen onena. Afrikarrak jaun eta

jabe izan ziren

## ...datua

**16** egun igaro dira *Marero* ontzia desagertutzat eman zenetik lehenengo aztarna aurkitu duten arte, atzo aurkitutako baltsa hain zuzen.

## ...adierazpena

«Juduen eta estatu batuarren aurka guda santua bultzatzea krimena bada, ni kriminala naiz»

**Osama Bin Laden**  
Lider islamikoa

## ... seiko urrea

ANDRES URRUTIA

Urte berriaren jaiotzagiria

**J**ada etorria da 1999. urtea. Egunak ere joanak dira urte berri honetarako.

Heldu da, beraz, urte berri horri, edozein jaioberriri dagoen moduan, jaiotzagiria luzatzeko garaia, legez ez bada, halako barne moldez, bakoitzak urte berrirako dituen gogo-desio horiek nolabait atondu nahian.

Jaiotzagiria nork luzatu ere bilatu beharra dugu, egutegiaren joan-etorriek argi erakusten baitigute eguneroko zenbakien aldaketa funts sakonagokoa dela oraingo honetan. Ustezko Erregistro Zibil horretan egingo diogu, hortaz, harrera zehatza urte berriari.

Gerokoan, egutegia eskuan dugula, jaiotzagiriaren laukitxoak betetzekotan ibili eta lehendabiziko datu premiazkoak hala nola eman behar. Noiz jaio horri erantzun biribila emateko modua dugu.

Zehatz-mehatz esateko, 1999. urteko lehen egunaren goizaldeko lehen segunduan. Non jaio hori, ostera, zailago egingo zaigu, edonon eta leku guztietan, aldi berean, sortua baita urte berritxo hori.

Segidan, aita-amak nortzuk izan ditzakeen ikertu behar, gerogarrenean aitabitxi eta amabitxi ere behar ditugula.



Ama, berriz, euskaldunen *borondatea*<sup>o</sup> jarriko nuke nik, ustezko Erregistro Zibil horren arduraduna izango banintz. *Borondatea*, berori behar baitugu nahitaez

prozesua aurrera eramateko eta behar den moduan adostu ahal izateko.

Aita-amatasun horretan murgilduta, esan legez, gurean ohiturak duen pisua onartuta, aitabitxi edo aita pontekoa bilatu behar. Pontekorik izan ez arren, nik aitabitxi jarriko nuke *zentsuna*, behar-beharrezkoa baita halakorik Euskal Herriaren etorkizuna bermatzeko.

Ama pontekoa, jakina, *kemena*. Beste behin ere, emetasunari dagokionez, gur egiten diot menari berari, gizakiak dituen ahalmen ororen oinarrian baitago.

Aita-amak, aita pontekoa zein ama pontekoa, badoaz egutegiaren barruan, ume jaioberriri izena ipintzera. Izenetan hamaikatxo katramila izan dute, urte berriaren izatea bera ere zalantzan dutilako. Neska ala mutil? Horra hor eztabaida.

Artean, hala ere, *itxaropena* eta *borondatea*, *zentsuna* eta *kemena* batera jorratuz geror, ostera ere, ustezko Erregistro Zibil horren arduradunak zuzeneko aholkua eman die hara bildutako guztiei.

Aho batez onartu dute horiek gomendioa. *Bake* izango du izena jaioberririak eta edonon eskura dezakegu horren jaiotzagiria, hala nahi badugu bederen.